

AGINDUA, 2022ko otsailaren 25ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez epea luzatzen da Legutioko udalerriko Ibarren (SR1 sektorea) 42 babes ofizialeko etxebizitza alokairuan esleitzeko prozeduran parte hartzeko.

AURREKARIAK:

Lehenengoa.- 2022ko otsailaren 14an Euskal Herriko Agintzaritzaren aldizkarian argitaratu zen 2022ko urtarrilaren 31ko, AGINDUA, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio Legutioko udalerriko Ibarren (SR1 sektorea) 42 babes ofizialeko etxebizitza alokairuan esleitzeko prozedurari.

Prozeduran izena emateko epea 2022ko otsailaren 15ean zabaldu zen eta otsailaren 28an amaitzen.

Bigarrena.- Aipatu Aginduaren Hirugarren Ebazpenean esaten da: "Esleipen-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute agindu hau argitaratzen den egunean Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan altan daudenek, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alokairuko eskatzaile gisa Araba Erdialdeko eremu funtzionaleko udalerriren batean altan daudenak (Agurain, Añana, Armiñon, Arraia-Maeztu, Arratzua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Berantevilla, Bernedo, Burgelu, Donemiliaga, Alegría-Dulantzi, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Vitoria-Gasteiz, Gaubea, Harana, Iruña Oka, Iruraiz-Gauna, Kanpezu, Kuartango, Lagran, Lantaron, Legutio, Otxandio, Urkabustaiz, Ubide, Urizaharra, Zalduondo, Zanbrana, Zigoitia eta Zuia)".

Eta gaineratzen du: «Hirugarren aurrekarian aipatzen den, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta Legutioko Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmenaren ondorioz, agindu hau argitaratzen den egunean, Legution gutxienez etenik-gabeko bi urteko errola-antzinatasuna dutenek izango dute lehentasuna etxebizitzak esleitzerakoan».

Hirugarrena.- Arazo teknikoak direla eta Araba Erdialdeko eremu funtzionaleko pertsona guztiek ezin izan dute izena eman Legutioko Ibarra eremuko 42 etxebizitzen esleipen prozeduran parte hartzeko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Lehenengoa.- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari dagokio honako agindu hau xedatzea, Babes publikoko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko 2008ko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 12. artikuluan jasotzen denaren arabera; Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 48. artikuluan xedatutakoari jarraikiz (agindu hori etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa da).

Bigarrena.- Herri administrazioetako Administrazio Prozedura Komunaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32 artikulua ezartzen du arazo teknikoak direla eta dagokion sistemaren edo aplikazioaren ohiko funtzionamendua ezinezkoa izan denean, eta arazoa konpondu arte, Administrazioak epeak luzatu ditzakela baldin eta jatorrizko epea ez bada iraungi; hartara, egoitza elektronikoan argitaratu beharko da, bai gertatutako arazo teknikoak, bai eta jatorrizko epe ez iraungiaren epearen luzapena.

Prozedura honetan, parte hartzeko interesa duten pertsona batzuek ezin izan dute izena eman nahiz eta dagoeneko zenbait arazo teknikoak soluzionatuak izan diren. Hori dela eta, beharrezkoa da prozeduran parte hartzeko epea, 2022 martxoaren 11ko epea luzatzea. Luzapen hori Etxebideko web gunean eta egoitza elektronikoan argitaratuko da.

Horrenbestez, aipatutako legezko manuak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko

gainerakoak ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- martxoaren 11ra arte epea luzatzea; era honetan, aipatu Aginduak eta esleipen-prozedura honi aplikagarria zaizkion arauak zehazten dituzten baldintzak betetzen dituzten pertsonak edo bizikidetzak-unitateak sustapen honetako esleipen-prozeduran parte hartu nahi badute, dagokion inprimakia aurkezteko aukera izan dezaten, leku hauetan:

- Aurrez aurre: Zuzenean zerbitzua (aurrez hitzordua hartuta), Ramiro de Maeztu kalea, 10, 01008 Vitoria-Gasteiz, Araba.
- Postaz: Arabako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritza, Samaniego kalea 2, 1. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz, Araba.
- Telematikoki: <http://www.etxebide.euskadi.eus> webgunearen bidez.

Bigarrena.- Agindu honen aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, zuzenean, bi hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan. Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da errekurtso biak aurkezteko epea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Dekretu hau 2022ko martxoaren 1eko 02/05an jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 25ean.

Lurralde Plangintza, Etxebizitzako eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

